

## Carlotaren egunkari urdina



### **Carlotaren egunkari urdina**

Jatorrizko izenburua: *El diario azul de Carlota*

Egilea: Gemma Lienas

Itzultzailea: Jesus Mari Lasa

Argitaratze urtea: 2007

Argitaletxea: Erein

### MIKEL GARMENDIA

Gazte literatura jorratu du gehienbat Gemma Lienas idazle kataluniarrak idatzi dituen hogeitik gora liburuetan. Horietako batzuk euskaratuak genituen lehendik: *Joan-etorriko txartela*; *Horrelakoa da bizitza*, *Carlota*; eta *Carlotaren egunkari morea*. Liburu horietako pertsonaia bera, Carlota, neska adonetsu eta beregaina, dugu *Carlotaren Egunkari Urdina* kontakizuneko. Egunkari berri honen zergatia egileak berak ematen digu liburuaren hasieran: genero indarkeriaren gaia jorratzea. Salatzea eta hezitzea ditu helburu, horra. Ez du ezkututzen helburua eta, beraz, ez gara gu hasiko literatur lanek helburu pedagogikorik edukitzea egokia den ala ez eztabaidatzen. Halaxe planteatu digu eta kito.

Egunkaria bizi-bizia da eta zerikusi handia du horrekin liburua hainbat elementu txandakatuz osatua izatearekin: txostenak, testak, berriak, Messenger elkarrizketak, Samsa pertsonaia birtualarekin dituen solasaldiak eta, azkenik, bere lagun Mireiak mutil-lagunarekin bizi duen istorioa eta horren inguruko gorabeherak.

Argi dauka Carlotak –Gemma Lienak–: injustizien aurrean ez da isildu behar; baina ez hori bakarrik, salatzeaz gain matxinatzea bultzatzen du, ikuspegi ezkertiar eta feminista batetik matxinatzea. Etengabe errepikatuko zaigu liburuan, genero indarkeriaren oinarrian dagoen arazoia kulturala dela eta arras aldatu beharra dagoela jaso dugun eredu patriarkala genero indarkeria eta, oro har, aukera-bedintasunik eza ezabatzeko.

Halatan, liburu honi adjektiboren bat jarri nahi izatez gerotan nik, batez ere, *beharrezkoa* dela esango nuke. Beharrezkoa eguneroko ogia dugulako genero indarkeria eta etorkizuna bestelakoa izango bada, hori gazteen eskutik etorriko delako. Eta haienezako egina da, hain zuzen ere, liburu hau, nahiz eta helduentzat ere guztiz liburu gomendagarria den –ez bada beharrezkoa–.

Batzuetan, datu eta informazio pilaketa astun samar egitera iristen bada ere, arestian aipatu dugun teknikari esker, elementu desberdinak txandakatzeari esker, berehala berreskuratzen dira arreta eta tentsioa.

Erraz eta gustura irakurtzen den horietako bertsioa eman digu J.M. Lasa itzultzaileak, esaldi eta egituretan samur eta, lexikoan, berriz, moderno bezain ausart.